

I. Xedapen orokorrak

ESTATUKO BURUZAGITZA

II

15411 *Uztailaren 31ko 27/2003 Legea, Etxeko indarkeriaren biktimen Babes agindua arautzen duena.*

JUAN CARLOS I.
ESPAINIAKO ERREGEA

Lege hau ikusi eta ulertzen duten guztiak:
Jakizue Espainiako Gorteek honako lege hau onartu dutela eta Nik berretsi egiten dudala.

ARRAZOIEN AZALPENA

I

Familia esparruan erabilitako indarkeria eta, bereziki, genero indarkeria gure gizarteko arazo larri bat da, arazo honek botere publiko guztien aldetik erantzun global eta koordinatu bat eskatzen duelarik. Indarkeria modu hauek sorrarazten duten egoera etxeko esparrutik haratago doa, hiritargo guztiari eragiten dion eta hiritargo guztia tartean sartzen duen gaitz bilakatuz. Ezinbestekoa da, hortaz, tresna juridiko berri eta eraginkorragoak hartzea, teknikoki ondo artikulatutakoak, etorkizunean ekintza larriago bilakatu daitekeen edozein portaera hasiera hasieratik moztuz. Azken finean, beharrezkoa da erasotzailearentzako kautela-neurri penalak, hau da, indarkeriazko ekintzak berriz ere burutzea eragozteko asmoa duten neurriak, zein etxeko indarkeriaren biktimaren babesgabatasuna saihestu eta bere ahultasun egoera bereziari erantzuna ematen dioten izaera zibil eta sozialeko babes neurriak bateratzen dituen akzio integral eta koordinatu bat izatea.

Helburu honekin, joan den 2002ko urriaren 22an, Diputatuen Kongresuko Osoko Bilkurak Gizarte eta Lan Politikako Batzordearen baitan azpibatzerde bat sortzea adostu zuen «... genero indarkeriaren aurrean erantzun integrala ematen duten neurri legegileak egiteko ...» xedearekin. Azpibatzerde honen ondorio garrantzitsuen artean, hain zuzen ere Justizia Ministerioak babesturiko proposamena da azpimarragarrienetakoa: etxeko indarkeriaren biktimentzako babes agindua deritzon tresna berri baten sorrera eta arautze proposamena.

Ekimen honek adituen hainbat dokumentu eta txostenetan, bai maila nazionaleko adituenetan (Botere Judizialeko Kontseilu Orokorra, Emakumearen Institutua, Estatuko Fiskaltza Orokorra, eta abar ...) zein nazioarteko organismoetako adituenetan (NBE, Europako Kontseilua, EBko erakundeak), adierazi izan den kezka bati erantzuten dio. Espainiako Gorteek kezka hori «... erantzun integral bat emateko eta koordinazioa lehentasun absolutu gisa izateko beharrian ...» bezala adierazi zuten Emakumearen Eskubideen Batzorde Mistoaren baitan burututako oraintsuko txostenetan, Diputatuen Kongresuko eta Senatuko Osoko Bilkurek ere beraien egin dutelarik. Lege honekin Espainiako Gorteetan aho batez onartutako agindu hau betearazten da.

Etxeko indarkeriaren biktimen babes agindua delitu eta falta hauen biktima direnen babes eta tutoretza tresna ezberdinak bateratzen ditu. Instrukzio epaitegi baten aurrean buruturiko prozedura judizial azkar eta erraz baten bidez biktimak babes estatutu integral bat izateko aukera izatea nahi du, estutu integral horrek izaera zibileko eta penaleko kautelakzioak modu koordinatuan barne hartzen dituelarik. Hau da, biktimarengana berriz hurbiltzea galarazteko erasotzailearen mugimendu askatasuna mugatzen duten neurriak zein eraso jaso duen pertsonari eta bere familiari segurtasun, egonkortasun eta babes juridikoa eskaintzera zuzenduriko neurriak era bateratuan barne hartzen dituen ebazpen judizial bakarra, dagokion ezkontza prozedura zibilaren formalizazioaren zain egon behar izan barik. Babes agindu judizialak, bere aldetik, Administrazio publiko, estu mailako, autonomiko eta lokal ezberdinek eurei dagokien sistema juridikoetan ezarritako gizarte-babeserako tresnak berehala aktibatzea suposatzen du. Horixe da, hain zuzen ere, bere punturik berritzaileena.

Babes aginduan txertaturiko neurriak eraginkor egiteko xedearekin, bereziki erraza den prozedura bat diseinatu da, etxeko indarkeriaren biktima guztientzat eskuragarria dena, berauek zein berauen ordezkari legalek edo berauen sendiko hurbileneko pertsonak babes agindua inolako formalismo tekniko eta kostu gehigarririk gabe eskatu ahal dezaten. Halaber, babes agindu berria modu azkarrean lortzeko aukera egon behar da, izan ere, berau ahalik eta azkarren aktibatzen ez baldin bada biktimak ez du babes errealek izango. Horretarako, delitu eta falta jakin batzuen epaiketa azkarrean prozedura arautzen duen urriaren 24ko 38/2002 Legeak zabalduko ildoari jarraituz, arautze hau babes agindua hartzeko eskumena guardia lanetan dagoen Instrukzio Epaileari ematearen alde agertzen da. Erabaki judiziala asaldagarritasun txikiagoarekin bideratu beharko da unean-unean zabalik dagoen prozedura penalaren baitan, edozein direlarik ere bere izaera eta ezaugarriak. Horretarako, ustezko erasotzailearen audientzia judiziala Prozedura Kriminaleko Legearen 504 bis 2 artikuluan aurreikusitako agerraldiarekin egokitzea ahalbidetzen da, azken hau konkurrenteak diren gertakariak edo zirkunstantzien larritasunagatik bidezkoa denean, 798. artikuluan aurreikusitako audientzia bidez, epaiketa azkarreko prozeduraren arabera edo, bere kasuan, falten epaiketa egintzaren arabera izapideturiko kausak direnean.

Azkenik, lege berriak ontzat ematen du etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro Zentrala, bertara berehalako sarbidea izango dutelarik edozein epaitegi edo auzitegitan ebatzitako babes aginduek, eta bertan, gainera, delitu eta falta hauen biktima direnen babesa bermatzeko asmoarekin, ekintza edo gertakari garrantzitsuenen oharrak jasoko direlarik.

Lehenengo artikulua.

Prozedura Kriminaleko Legearen 13. artikulua aldatzen da, jarraian ageri bezala idatzita geratzen delarik:

«Lehenengo eginbidetzat hartzen dira desager daitezkeen delituaren frogak idatziz jasotzea, beronen baieztapenera eta gaizkilearen identifikaziora daraman oro bildu eta zaintzapean jartzea, bere kasuan delituaren ustezko erantzuleak atxilotzea eta gaizkileak iraindu edo kalteturikoak, bere ahaideak edota beste pertsona batzuk babestea, horretarako 544 bis artikulua aipatzen dituen kautela-neurriak edota lege honetako 544 hiru. legean aurreikusitako babes agindua adosteko aukera dagoelarik.»

Bigarren artikulua.

Prozedura Kriminaleko Legean 544 hiru. artikulua berri bat gehitzen da, jarraian ageri bezala idatzita geratzen delarik:

«1. Instrukzio epaileak etxeko indarkeriaren biktimantako babes agindua ebatziko du, Kode Penaleko 153. artikuluan aipaturiko pertsonen bizitzaren, osotasun fisikoaren edo moralaren, askatasun sexualaren edo segurtasunaren kontrako delitu edo faltaren bat burutu denaren zantzu sendoak egonik, biktimarentzat arrisku egoera objektibo bat dagoenean, biktima horren egoerak artikulua honetan arauturiko neurriren bat hartzea eskatuko bailuke.

2. Babes agindua ofiziozko epailearen eskariz, biktimaren eskariz, beronekin aurreko atalean aipaturiko harremanen bat duen pertsonaren eskariz edota Ministerio Fiskalaren eskariz adostuko da.

Lege honen 262. artikuluan aurreikusitako salaketa betebeharrak orokorra kaltetu barik, aurreko atalean aipaturiko ekintza edo gertakariren baten berri duten laguntza-erakunde edo laguntza-organismoek, publiko zein pribatuak, guardia epaileari edo Ministerio Fiskalari horren berri eman beharko diote berehala, babes agindua hartzeko prozedura abiarazi edo bultzatu ahal izan dadin.

3. Babes agindua zuzenean eskatu ahal izango da agintaritza judizialaren edo Ministerio Fiskalaren aurrean, edo baita Segurtasun Indar eta Gorputzen aurrean, biktimarentzako arretoa zentroetan edo gizarte-zerbitzuetan ere. Aipaturiko eskaera hori berehala igorri beharko zaio eskumena duen epaileari. Epailearen lurralde eskumenaren inguruan dudaren bat sortzen den kasuan, babes agindua eskatu den lekuko epaileak abiarazi eta ebatzi beharko du babes agindua hartzeko prozedura, gerora beronen jarduerak eskumena duen hari igortzeko aukera zabalik utziz.

Gizarte-zerbitzuek eta arestian aipaturiko erakundeek laguntza eskaini behar dioten biktimei babes aginduaren eskaera-orka emango diote, xede horrekin informazioa, formularioak eta, bere kasuan, Justizia Administrazioarekin eta Ministerio Fiskalarekin komunikazio telematikozko kanalak beraien eskura jarritz.

4. Babes aginduaren eskaera jaso ostean, guardia epaileak, artikulua honetako 1. atalean aipaturiko balizko kasuetan, premiako audientzia batetara deituko ditu biktima edo bere ordezkari legala, eskatzailea eta erasotzailea, bere kasuan, abokatuaren laguntzaz. Halaber, Ministerio Fiskala ere deituko du audientzia horretara.

Audientzia hau 504 bis 2 artikuluan aurreikusitakoarekin batera bideratu ahal izango da, honen deialdia bidezkoa denean, 798. artikuluan aurreikusitako audientzia bidez, lege honetako IV. liburuko III. Tituluan aurreikusitako prozeduraren arabera edo, bere kasuan, faltan epaiketa egintzaren arabera izapideturiko kausak direnean. Salbuespenezko kasuetan, audientzia guardia zerbitzuan zehar burutzea ezinezkoa denean, eskera egin zaion epaileak ahal duen datarik gertukoenerako egingo du deialdia. Nolanahi ere, audientzia eskaera aurkeztu osteko 72 orduko epearen barruan burutu beharko da.

Audientzian zehar, guardia epaileak erasotzailearen eta biktimaren, euron seme-alaben eta familiako gainontzeko kideen arteko aurrez aurrekoa saihesteko neurri egokiak hartuko ditu. Horretarako, audientzia honetan bakoitzak bere aldetik deklaratzeko xedatuko du.

Behin audientzia burutu ostean, guardia epaileak babes aginduaren inguruan dagokiona, eta baita honek barne hartzen dituen neurrien eduki eta iraunaldiari dagokiona ere, auto bidez ebatziko du. Horri kalterik egin barik, instrukzio epaileak 544 bis artikuluan aurreikusitako neurriak har ditzake kausaren izapidearen edozein unetan.

5. Babes aginduak 1. atalean aipaturiko gertakari biktimari babes estatutu integral bat ematen dio, babes estatutu integral honek artikulua honetan aurreikusitako ordena zibil eta penaleko kautela-neurriak eta ordenamendu juridikoan ezarritako beste laguntza eta gizarte-babes neurriak barne hartuko dituelarik.

Babes agindua edozein autoritate eta Administrazio publikoren aurrean baliagarria izango da.

6. Izaera penaleko kautela-neurriak prozedura kriminaleko legedian aurreikusitako edozein izan daitezke. Euron baldintza, eduki eta iraunaldia lege honetan izara orokorrekin ezarritakoak izango dira. Instrukzio epaileak hartuko ditu biktimak behar duen babes integral eta berehalakoari erantzunez.

7. Izaera zibileko neurriak biktimak edo bere ordezkari legalak eskatu beharko ditu, edota Ministerio Fiskalak seme-alaba adingabeak edo ezgaituak daudenean, baldin eta ordena jurisdikzional zibileko organo batek aurretiaz adostu ez baditu, eta Kode Zibileko 158. artikuluan aurreikusitako neurriek kalterik egin barik. Neurriak ondokoak izan daitezke: bizileku familiarraren erabilera eta gozamenerako eskuduntza, zaintza erregimenaren ebazpena, bisitak, komunikazioa eta egonaldiak seme-alabekin, mantenu prestazioaren erregimena eta adingabea arriskutik aldentu eta kalteak saihesteko egoki iruditzen den edozein disposizio.

Babes aginduan barne hartzen diren izaera zibileko neurriak 30 eguneko iraupena izango dute. Epe honen barruan biktimaren edo bere ordezkari legalaren eskaeraz familia prozedura bat irekiko balitz jurisdikzio zibilaren aurrean, adosturiko neurriek indarrean jarraituko dute demanda aurkeztu osteko hogeita hamar egunetan zehar. Hortaz, eskumena duen lehenengo instantziako epaileak berretsi, aldatu edo indargabetu beharko ditu neurriak.

8. Alderdiei babes aginduaren berri eman beharko zaie eta epaileak berehala eman beharko die horren jakinarazpena, testigantza oso bidez, biktimari eta babes aginduak hartzeko eskumena duten Administrazio publikoei, bai babes aginduak segurtasunezkoak direnean eta bai gizarte-laguntzazkoak, laguntza juridikozkoak, osasun-laguntzazkoak, laguntza psikologikozkoak edo beste izaera batekoak direnean ere. Horretarako, komunikazio hauen arintasuna bermatzen duen koordinazio administratiboko sistema integratu bat ezarriko da araudiaren arabera.

9. Babes aginduak biktimari etengabe inputatuaren egoera prozesalaren inguruko informazioa zein hartutako kautela-neurrien hedapen eta iraunaldiaren inguruko informazioa eman beharra ekarriko du berekin. Partikularki, biktimak etengabe jasoko du erasotzailearen espetxe egoeraren berri. Horretarako, Espetxe Administrazioari babes aginduaren berri emango zaio.

10. Babes agindua Etxeko Indarkeriaren Biktimen Babeserako Erregistro Zentralean erregistratuko da.

11. Zabalik dagoen prozedura penal baten izapidean zehar inputatuarekin artikulua honetako 1. atalean adierazitako

harremanen bat duen pertsonaren batentzat arrisku egoera bat sortzen den kasuetan, kusaz arduratzen den Epaille edo Tribunalak biktimaren babes agindua adostu dezake, aurreko ataletan ezarritakoaren arabera.»

Lehenengo xedapen gehigarria.

Gobernuak, Justizia Ministerioaren proposamenari jarraituz, eta Botere Judizialeko Kontseilu Orokorra eta Datuen Babeserako Agentzia entzun ostean, Etxeko Indarkeriaren Biktimen Babeserako Erregistro Zentralaren antolakuntzaren inguruko beharrezko arauzko xedapenak ebatziko ditu, eta baita bere funtsen inskripzio eta deuseztapen erregimenaren inguruko eta bertan dagoen informaziorako sarbidearen inguruko arauzko xedapen egokiak ere, beti ere bere konfidentziasuna bermatuz.

Bigarren xedapen gehigarria.

Lege honen ezarpenaren segimendua Botere Judizialeko Kontseilu Orokorreko ordezkariak, Estatuko Fiskaltza Orokorrekoak, lanbide juridikoetakoak eta Justizia, Barne-arazoetarako eta Lan eta Gizarte-arazoetarako Ministerioetakoak zein komunitate autonomoetako eta erakunde lokaletako ordezkariak osaturiko batzorde batek burutuko du.

Batzorde honen ardura izango da lege honetan araututako babes aginduaren ezarpenerako hedapen orokorreko protokoloak burutzea, eta baita epaileek, tribunalek eta eskumena duten Administrazio publikoek harturiko babes eta segurtasun neurrien eraginkortasuna bermatzeko koordinazio tresna egokiak adostea ere.

Azken xedapen bakarra.

Lege hau «Estatuko Aldizkari Ofizialean» (BOE) argitaratu osteko egunean sartuko da indarrean.

Horrela bada,
Espainiar guztiei, norbanakoei nahiz agintariei, agintzen diet bete eta betearaz dezatela lege hau.

Palma de Mallorcan, 2003ko uztailaren 31n.

JUAN CARLOS Er.

Gobernuko Presidentea,
JOSÉ MARÍA AZNAR LÓPEZ